

JASANGARRITASUNARI BURUZKO GrALari URTEKO SARIA

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean defendatzen den aurreko ikasturte akademiko amaitutako GrALi emango zaio saria, baldin eta jasangarritasunaren hiru ikuspegietatik –ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa– gutxienez bi hobekien integratzen baditu.

BALDINTZA

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean defendatutako GrALean gutxienez 7ko kalifikazioa lortu izana aurreko ikasturte akademiko amaituan.

SARIRA AURKEZTEKO MODUA

Ikasleak hiru dokumentu hauek bidali beharko ditu posta elektronikoz Miren Artaraz (miren.artaraz@ehu.eus), Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Gasteizko Atala) Praktiketako eta GrALeko Dekanordeari, pdf formatuan:

- Eskabide-orria.
- Anonimotasuna bermatzeko, hurrengo datuak kanpoan uzten dituen GrALA:
 - Ikaslea.
 - GrALeko zuzendaria.
 - Atala non GrALA defendatu den.
- 2-4 orrialdetako laburpen-idazkia, anonimoa ere, jasangarritasunari dagokionez, GrALaren ekarpena zehazteko.

Miren Artarazek dagokion hartu-agiria bidaliko du dokumentazioa jasotzean.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 15etik 30era izango da (azaroaren 30a jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da).

EBALUAZIOA

Jasangarritasun Epaimahaiak ebaluatuko du GrALA, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Gasteizko atala) hiru irakasle eta ikertzailek osatuko dute epaimahai hori.

Jasangarritasun Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, aurkeztutako lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

Erabaki horietako bat ere ezin izango da apelatu, eta ezin izango zaio txostenik eskatu erabaki horiek hartzen dituzten pertsoneri.

SARIA EMATEA

Saria eta Egiaztapen diploma bat Gasteizko ataleko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko diplomak banatzeko ekitaldian emango dira.